



Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari gomendatzen zaio “zaldi-proben” lehiaketako parte hartzaile bati ezarritako zigorra ondorioz gabe utz diezaion, ukatutako lekukotza-froga bat praktikatu eta ebazpen berri bat emate aldera.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo zuen 2010eko urriaren 15ean Euskadiko Herri Kiroletako Federazioaren epaile bakarrak “zaldi proba” lehiaketa bat uzteagatik ezarri zion zigorra salatze aldera. Lehiaketa horretan gurdizain gisa parte hartu zuen. Erreklamatzailak gertakariak ukatzen zituen. Azaldu zuenez, eta proban egon ziren pertsonen lekukotasunaren bidez egiazta zezakeenez, egia zen jokalekutik atera zela proba amaitu aurretik, baina ez zen izan berak nahi izan zuelako, epaileak berriaz eskatu ziolako baizik, animalia akuilatzeari utz ziezaion eskatu zionean bere hitzak aintzat hartu ez zituelako. Kexagileak, hala ere, ez zituen lekukoen datu pertsonalak eskaini Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean zigorraren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen arte. Batzordeak uko egin zuen lekukotasunen proposamena, eta erreklamatzailaren esanetan, hori zela-eta babes falta sumatu zuen.
2. Lehiaketa 2010-08-16an izan zen Berangon. 2010-09-23ko erabaki bidez zigortzeko aparteko prozedura hasi zen. Horren arabera, erreklamatzailak bost eguneko epea zuen alegazioak aurkezteko eta froga proposatzeko. Erreklamatzailak 2010-09-30eko idazki bidez erantzun zuen. Bertan, gertakarien inguruan zuen bertsioa aurkeztu zion epaileari eta, beharrezkoa izanez gero, lekukoen bidez bermatzeko gai zela azaldu zion. Hala ere, une hartan lekuko horien identifikazio-daturik ez zuenez, zigortzeko organoak froga proposiziorik ez zegoela ulertu zuen eta, aktaren egiazkotasun ustea indargabetu ez zenez, zigorra ezarri zuen.
3. Erreklamatzailak horren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen. Horretarako 2010-12-01ean Kirol Justiziarako Euskal Batzordean aurreko idazkian aipatu zituen lekukoen izenak eta NANak aurkeztu zituen eta lekuko gisako aitortpena har ziezaieten eskatu zuen. 2011-02-25eko erabaki bidez, batzordeak ukatu egin zuen eskatutako froga eta errekurtsu hori baliogabetu zuen. Erreklamatzailak kexan adierazitakoaren arabera, 2011ko martxoaren 11n berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen, erakunde honetan halakorik egiaztatzen duen agiririk aurkeztu ez badu ere.





4. Arartekoaren aurrean kexa aurkeztu ondoren, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera jo zuen kexan hizpide ziren gaietarako buruzko informazioa eskaini ziezagun, eta bereziki, proposatutako lekukotasun-froga ukatzeko jarraitutako irizpideari buruzkoa.

5. Kirol Justiziarako Euskal Batzordeak 2011ko ekainaren 17an Arartekoari bidalitako txostenaren bidez sailak bi gai horiek argitu zituen. Idazkiak babes faltaren kontua zehatz-mehatz aztertzen du eta halakorik gertatu ez zela ondorioztatzen du, izan ere, erreklamatzailak alegazioak izapidetzean aurkeztu ahal izan zituen lekukoak datuak, baina ez zuen horrela egin. Ararteko prozedurak ondorio horretarako ezartzen duen bost eguneko epea arauzko xedapenetara egokitzen dela gogorarazten du eta erreklamatzailak errekurtsio fasera arte datu horiek lortzeko zailtasunik erakutsi ez izana nabarmentzen du. Zailtasun hori alegazioen fasean adierazi ahal izan zuen, epea luza zezaten. Zalantzan jartzen du erreklamatzailak lekukoak aurkitzeko zailtasunak eduki izana beste herri batzuetan kanpo bizi izanagatik, izan ere, haren hasierako aldarrikapenen bidez jakin ahal izan genuen alegazioak aurkeztu zituenerako euren identitatea ezagutzen zuela, haiekin harremanetan jarri baitzen deklaratzeko prest ote zeduten jakite aldera. Nolanahi ere, eskatutako lekukotasun froga desegokitzen jotzen du, izan ere, aktaren zehaztapenak argiak dira eta horien egiazkotasun ustea sinatzen duten pertsonen izakerak eta entitateak indartzen dute. Horien artean, animalia jabea bera ere badago. Amaitze aldera batzordeak adierazi duenez, kasu honetan zigorra mantentzeko erabakia gora-behera, erakunde honekin ados dago defentsarako eta frogarako eskubidea errespetatzeko beharrezkin. Irizpide horrek federazioko hainbat zigor baliogabetzera bultzatu du babes falta antzeman izan duenean.

6. Erantzun hori jasota, Arartekoak bere esku hartzeari amaiera ematea erabaki du honako ebazpen hau emanaz. Ebazpena ondoko gogoetetan oinarritzen da.

Gogoetak

1. Ezer baino lehen sailak adierazi duen lankidetzaren jarrera azpimarratu nahiko genuke, bai Kirol Justiziarako Euskal Batzordeak garatutako txostenean argudioak azaltzen egindako ahaleginarengatik, bai sailburuari eskatu dizkiogun datuak eta azalpenak eskaintzeko islatu duen aldeko jarrerarengatik. Erakunde honekin lankidetzan aritzeko ez da zertan bere proposamenekin bat egin: limurtze magistratura izanik, Arartekoak gardentasuna, azkartasuna eta diligentzia behar ditu haren funtzioak betetzeko kexak hizpide dituen jardueren eskubidea arrazoituzerakoan. Bidezkoa da kasu honetan hala izan dela onartzea, gure irizpidearen eta jardun duen administrazioaren artean desadostasuna egon bada ere, ondoren azalduko dugun moduan.



2. Aztertutako kasuan eztabaida juridikoa babes falta egon zitekeelakoan oinarritu da, eta proposatutako testigantza frogatik ukatzean, erreklamatzailari bere defentsarako dagozkion frogatik bitartekoak erabiltzeko eskubidea ukatu zaion baloratu behar da, legeek onartzen dutena kontuan hartuta. Ildo horri jarraiki kontuan hartu beharko genuke, jarraitutako prozedura bere osotasunean aintzat hartuta, bai interesdunak lekukotasun frogatik gauzatzeko adierazi duen diligentzia, bai ukapenaren oinarriaren arrazoiak. Arrazoi horiek aztertzeko, proposatutako lekukoek gertatutakoaren inguruan izan zezaketen garrantzia ere kontuan hartu beharko da eta, horien edukia aintzat hartuta, gaiaren funtsaren inguruan har daitekeen amaierako erabakia alde batera utzi beharko da.
3. Kasuaren lehen hurbilketa batean arrazoizkoa dirudi interesdunak aurkeztutako alegazioa bost eguneko epean lekukoak lokalizatzea eta euren datuak lortzea zaila zela esaterakoan. Hasieratik azaldu zuen moduan, pertsona horien lekukotasunarekin gertakariaren inguruan zuen bertsioa bermatu nahi zuen. Epe hori ondorio horietarako nahikoa ote zen baloratzeko, ezin dugu ahaztu lekukotasun hori epailearentzat are baliagarriagoa litzatekeela lekukotasuna ematen zutenen eta interesdunaren arteko harremana ahalik eta txikiena izan ahala. Beraz, frogaren karga interesdunak izanik, ekitatearen mesedetan, eskaintako epea nahikoa izan behar da ezezagunak diren pertsonak aurkitu eta horien datuak lortu ahal izateko.

Sailak bere erantzunean aipatutako batzordearen txostenak zalantzan jartzen ditu erreklamatzailak alegatutako zailtasunak, ebatzen honen bosgarren aurrekarian azaltzen den moduan. Ez gatoz bat balorazio horrekin, izan ere, erreklamatzailak haren aldeko lekukotasuna eman zezaketen pertsonak zeudela baieztatzean, ez zen bermatuta geratzen, gure ustez, pertsona horiek ezagutzen zituenik ezta haiekin harremanetan jarri zenik lekukotasuna emateko prest ote zeuden jakiteko: baieztapen hori egitean, beharbada, bazekienez ikusle gisa zeuden pertsonak gertakariak ikusi zituztela, gertatutakoa argitzeko modurik egokiena haien lekukotasuna izan zitekeela eta behar bezain beste lortzeko asmoa zuela besterik ez zuen adierazi nahi izan. Aukera hori kontuan hartzeak ez du esan nahi sailak emandako azalpena egokia ez denik, besterik gabe aukera bakarra ez dela islatu nahi dugu, eta hala izan beharko litzateke ondorioa baliozkoa izan zedin.

4. Nolanahi ere, eta laburpen izaera alde batera utzita, eskaintako epearen arauzko nolakotasuna ez dugu eztabaidagai. Adierazitako eskaera kontuan hartuta, batzordeak frogatik ukatzeko hartutako erabakia baloratzen ari gara. Erreklamatzailak, alegazio fasean izan zituen zailtasunak oinarritzat hartuta, errekurtsio fasean azaldu nahi izan zuen frogatik hura, Kirol Diziplinaren Araudiari buruzko 7/1989 Dekretuaren 22.1. artikulua 3. paragrafoak jasotzen duen moduan.





Batzordearen erabakiak, aukera hori biltzen badu ere, ukatu egiten du lekuko gisa proposatutako bederatzi pertsonen deklarazioa hartzea egokitzat jotzen ez duelako. Erabaki hori da, beraz, aipatutako irizpideak kontuan hartuta Arartekoak baloratu beharrekoa, eta horretarako, adierazi behar dugu, alde batetik, legeak ez ziola galarazten Kirol Diziplinako Euskal Batzordeari burututako egokitasunaren inguruko epaiketa eman zezan. Ondorio horietarako, egokitzat jo behar ditugu epailearen behin betiko ustea osatzeko gai diren frogak, eta ez dira halakoak izango baliogabetzat jotzen direnak, hau da, amaierako erabakiaren emaitza aldatzeko aukerarik ez dutenak, gertakari horien inguruan dauden gainontzekoek bertan eztabaidatzen den une zehatza bermatu izan dutelako. Halaxe ezartzen du sailak ongi aipatzen duen konstituzioko jurisprudentziak, batzordearen ustez alor horretako bere jardueren irizpide gidaria denak, eta erakunde honek ez du hori zalantzan jartzen. Gure desadostasuna sortzen da, kasu honetan, ez dugulako bidezkoztat jotzen gertakari hauen inguruko gainontzeko frogak eztabaidatzen ari garen puntu zehatza sobera bermatzen dutela baieztatzea.

Lekukotasunaren eraginkortasun eza adierazteko izandako arrazoia azaltze aldera, erantzun horrek argitzat jotzen ditu aktaren zehaztapenak eta zigortzeko ebazpena bidaltzen gaitu zera dionean:

“Este Comité considera que no procede explorar esta vía ya que la presunción de certeza del acta se halla reforzada por la cualidad y entidad de las personas que lo suscriben, a saber, el propietario del animal, el juez de la prueba y el juez cronometrador (abere jabea, proba epaile y kronometrari epaile).

Entre ellos adquiere especial relevancia la firma del dueño del animal, compañero de equipo en la prueba, circunstancia ésta que se desprende del escrito de alegaciones de fecha 30 de septiembre en el que el recurrente viene a decir: “Si me excedí, arreando al animal, aunque yo no lo creo, lo hice porque al negarse a tirar injustificadamente, el dueño del caballo, que actuaba de arreador conmigo, me instaba continuamente a que siguiese arreando al animal, ya que él pensaba que se negaba a tirar sin ningún motivo”

Bere erabakia horrela azaltzean, batzordeak ez ditu aintzat hartzen, gure ustez, eskatutako frogaren egokitasunaren inguruko epaiketa egokia emate aldera, funtsezkoak diren bi kontu:

- akta sinatzen duten pertsonen izaera eta entitateari esker indartzen dela pentsatzea, epaileei dagokienez, uste horren arima haren indartzearekin nahastea da. Akta egiazkotzat jotzen bada, pertsona horiek sinatu dutelako da, hain zuzen ere. Ezinezkoa da, beraz, euren entitatea eta izaera kontuan hartzea kontrako frogak bideak ukatzeko, bestela *ius et de iure* izaera eskainiko zaio *ius tantum* jarduten duen uste bati. Beste gauza bat da, burutu ondoren, frogari esleitu ahal zaion balioa emaitza ikusita. Baina gure ustez, batzordeak, interesduna hasieratik haren





gertakarien bertsioa defendatzeko lekukoak aurkezteko prest zegoela eta horien datuak eskaini zituela ikusita, aitortpena hartzeko agindu ahal izan zuen, baita aurretik aipatutako dekretuaren 22.1. artikulua zehazten duen hoge eguneko gehieneko epean ere.

- batzordearen ebazpenak zein sailaren erantzunak garrantzia berezia eskaintzen diote animalia jabeak berak, erreklamatzaileren laguna izanik, akta sinatu izanari. Hala ere, pertsona horrek sinatzen duen gauza bakarra zera da: erreklamatzailera *jokalekutik atera zela proba amaitu aurretik animalia akuilatze baimenik eman ez ziotelako eta epaileak bitan esan ondoren makila izkina batean utz zezala animalia gehiago jo ez zezan*. Halaxe azaltzen du aktak gertatutakoa, eta interpretatzeko moduaren arabera, ezarritako zigorraren oinarri diren gertakariekin - erreklamatzailera, animalia jotzen jarraitzeko baimenik ez zuela ikusita, jokalekutik irtetea erabaki zuen- zein deskargu agirian alegatutakoarekin -erreklamatzailera jokalekua utzi zuen epailearen aginduari jarraiki, animalia ez jotzeko esan zion arren berdin jarraitu zuelako- bat egin dezake.

Hori esatean ez dugu aktaren egiazkotasuna zalantzan jarri nahi, aurkeztutako bertsioek adierazten dutenari dagokionez bertan azaltzen dena eztabaidagarria dela adierazi nahi dugu. Beraz, ez da nahikoa, interpretaziorik gabe, bertsio baten edo besteren alde agertzeko. Bi bertsioek bat egiten dute epaileak erreklamatzaileri zaldia jotzen debekatu ziola adierazten dutenean, eta aldea debeku horren eta jokalekua uztearen arteko harremanean oinarritzen da. Bi elementuak *"porque"* konjuntzioarekin lotzerakoan, aktak kausazko lotura ezartzen du animalia akuilatzeari uzteko aginduaren eta jokalekua uztearen artean. Horrek, gure ustez, bi ondorio ditu:

- objektiboki bi bertsioekin bateragarria da, beraz, nahita utzi izanaren alde jotzea, erreklamatzaileren aldeko bertsioaren kaltetan, kostata batera daiteke interpretazioan nagusitu behar den administrazioaren aldeko printzipioarekin.
- kausazko harreman hori, izan ere, zailtasun gehiagorekin gainera daiteke nahita utzi izanaren bertsioan kanporaketaren bertsioan baino. Ondorio horretara heltzeko, interpretazio arauak jarraiki, zera galdetu diogu geure buruari: zergatik jo zuen aktak beharrezkotzat gertatutakoaren arrazoa epailearen agindu eta oharrekiko desobedientzia izan zela azaltzea?. Erantzuna bertsioaren arabera ezberdina dela ohartu gara: erreklamatzailera defendatzen duena izanez gero, aktak kanporaketarekin zigor daitekeen jokabidea azpimarratu nahi izango zukeen -epailearen agindu eta oharrekiko desobedientzia-. Ikuspuntu horretatik, aktak adieraziko liguke gurdizainak proba utzi zuela epaileak, aginduak kontuan hartzen ez zituela ikusita, eta bitan ohartarazi





ondoren, hala agindu izan ziolako. Interpretazio hori epailearen bi oharren aipamenarekin indartuko litzateke, izan ere, horien bidez, gurdizainak jarrera berdinarekin jarraituz gero, eta hala gertatu zen, horrek ekar zitzakeen ondorioen berri eman nahi izan zion. Berriz, kausazko harreman horrek zigorra oinarritzen duen tesiarekin bat egiteko, aktak, uzteko izan zen arrazoa azaltzean, gurdizainaren barneko arrazoa bildu nahi duela ulertu beharko genuke, hau da, horrek joatea erabaki izan zuela epaileak animalia akuilatzeari utz ziezaion emandako aginduarekin ados ez zegoelako, edo agindu horren aukako eta jaso zituen oharren aurkako protesta adierazte aldera. Ezin dugu horrela ulertu aktak asmoko epaiketa burutzen duela ondorioztatu gabe eta, horrek, nahita ez, egiazkotasun ustea ahultzen du, halako epaiketak oinarritzeko gatazkatsuak izaten baitira beti. Izan ere, zigortzeko ebazpenak zailtasun horiek alde batera uzten ditu une horretan aktaren hitzez hitzeko adierazpenetik urrunduz: "Frogatutako gertakariak" ez dute debekuaren eta uztearen arteko kausazko loturarik, haien artean denborazko "*tras*" preposizioa besterik ez ezarriz.

Beraz, ez da aktaren egiazkotasun ustea ahultzeko proposatutako lekukotasunaren birtualtasuna besterik ez, izan ere, horrek eztabaidagairen inguruan bi interpretazio izan ahal dituenez, lekukoek horietako bat indartu dezakete aktarekin kontraesanetan jarri behar izan gabe. Baldintza horietan, eta lekukoaren aitopeneke merezi dezaketenez zentzua eta balorazioa aurretik epaitu gabe, ondoriozta dezakegu horiek gertatutakoaren inguruan esan dezaketena argigarri gerta daitekeela eta, ondorioz, entzun izan behar izan zituzten froga errekurtsio fasean proposatu bazen ere. Horrekin guztiarekin esan dezakegu proposatutako froga ez onartzeak erreklamatzailaren babes falta eragin zuela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

24/2011 GOMENDIOA, uztailaren 21ekoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari egina

2010eko azaroaren 15ean Euskadiko Herri Kiroletako Federazioaren Kirok Diziplinako epaile bakarrak erreklamatzailari ezarritako zigorra baliogabetu dezan, jarduerak frogaren unera atzera eramanez erreklamatzailak proposatutako lekukotasuna burutze aldera, hori ukatzeak haren babes falta eragin baitzuen.

Ebazpen berria eman dadin, lekukotasun horiek merezi duten balorazioa kontuan izanik, froga gisa eskura dauden gainontzeko elementuekin batera neurtuta.

